

**EBAZPENA, 2017ko azaroaren 3koa, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren zuzendariarena; Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legeari jarraikiz, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle eta Ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien ebaluazioa egiteko Ebaluazio Batzordeen kideak kargutik kentzea eta izendapen berriak xedatzen duena.**

Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legearen 8.3.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Agentziaren Zuzendariari dagokio Aholku Batzordearen kideak izendatzea eta kargutik kentzea, Gobernu Kontseiluaren iritzia entzunda.

Horregatik, esleitu zaizkidan eskumenei jarraiki, eta aipatutako aurreikuspenak betetzeko,

**EBATZI DUT:**

Lehenengoa.– Unibasqen Aholku Batzordea entzunda, Ebaluazio Batzordeen hurrengo kideak **izendatzea:**

1. Gizarte Zientzien Batzordea

Batzordekideak: Jon Andoni Duñabeitia Landaburu


2. Irakaskuntza Teknikoen Batzordea

Batzordekideak: Ana María Sastre Requena

Bigarrena.– Ebazpen honek egun honetatik bertatik aurrera izango ditu ondorioak. Hala badagokio, ebazpena ezagutzera emate aldera Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren web orrian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 3an.

**EVA FERREIRA**



Unibasqeko Zuzendaria